



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2012ko APIRILAREN 24an EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2012ko apirilaren 24an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Ainara Sarasola Arsuaga
Ainara Zurutuza Ilundain

Bere ezin etorria azaltzen dute: Uxue Etxebeste Eizagirre eta Koldobika Jauregi Zinkunegi.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - 2011ko martxoaren 27an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **2011 ekitaldiko udal aurrekontu orokorraren likidazioaren berri ematea.**
5. **Don Juanena etxearen gihartze-gelaren erabilerari buruzko arautegiaren onespena, hala bada.**
6. **S.U. izenean I.B. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
7. **Beste batzuk.**
8. **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2012ko martxoaren 27ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuak aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

07/2012 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 30ekoa, faktura txikien zerrenda eta ordainketa burutzea onestea, ebazten duena.

08/2012 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 18koa, 2012 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga errolda onartzea, ebazten duena.

09/2012 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 18koa, 2011 urteko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- SAUNIER DUVAL	102,00€
- SAUNIER DUVAL	233,79€
- ELECTRICIDAD ZIZURKIL	138,74€
- IZADI LABORATEGIA	145,14€
- MGS SEGUROS Y REASEGUROS	1.938,13€
- IZFE	1.629,07€
- IZFE	1.629,07€
- TOLOMENDI	2.642,09€
-ORONA	796,50€
- CDI INFORMATIKA	31,01€
-ELECTRICIDAD ZIZURKIL	233,77€
-HIERROS LABO	392,87€



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

-ARGITU ASESORES	133,52€
-VULCO	362,26€
- GAS NATURAL FENOSA	441,06€
- GAS NATURAL FENOSA	337,06€
- GAS NATURAL FENOSA	273,56€
- GAS NATURAL FENOSA	193,89€
- GAS NATURAL FENOSA	197,25€
- GAS NATURAL FENOSA	497,05€
- GAS NATURAL FENOSA	414,91€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **12.426,95** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARRENGO PUNTUA

2011 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Ondoren batzarkideei 2011 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorraren likidazioaren berri ematen da, 2012/09 zenbakia duen eta 2012ko apirilaren 18an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

09/2012 DEKRETUA

Udal honen 2011ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2011ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2011-12-31n:	9.604,86
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2011-12-31n:	79.088,93



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aurrekontuko zordunak :	78.265,00	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	823,93	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2011-12-31n:		108.872,82
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	49.059,42	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	59.813,40	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		-20.179,03
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		-20.179,03
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		-20.179,03
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		-2.570,06
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		0,00
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		-2.570,06
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		56.699,16
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		20.387,24
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		77.086,40

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BOSTGARRENGO PUNTUA **DON JUANENA ETXEAREN KIROL-GELAREN ERABILERARI BURUZKO** **ARAUTEGIAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Don Juanena etxearen kirol-gela egokitu dela.

Ikusirik Don Juanena etxearen kirol-gelaren erabilerari buruzko arautegia prestatu dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Don Juanena etxearen kirol-gelaren erabilerari buruzko arautegia onestea, ondorengoa delarik:

DON JUANENA ETXEAREN KIROL GELAREN ERABILERARI BURUZKO ARAUDIA (2012)

1.-KUOTA

Urtea amaitzeko gelditzen den kuota 30€koa izango da, erabiltzaileak ordainketa bakar batez ordaindu beharko duena. Ordainketa burutu ondoren erabiltzaileak bazkide izaera izango du.

Kuota osoaren ordainketa egin ondoren erabiltzaile/bazkideari kirol-gelara sartzeko giltza emango zaio, bazkideak dagokion kontratua sinatu beharko duelarik.

2.-ORDUTEGIA

Kirol-gelaren ordutegia ondorengoa izango da:

-Astelehenetik ostiralera: goizeko 9.00 etatik gaueko 21.00 etara.

-Larunbatak, igandeak eta jai egunak: goizeko 10.00 etatik eguerdiko 13.00 etara.

3.-ERABILTZAILE/BAZKIDE IZATEKO BALDINTZAK

Kirol-gelaren erabiltzaile/bazkide 16 urte baino gehiago duten pertsonak bakarrik izan daitezke.

4.-ERABILTZAILE/BAZKIDEREN BEHEBEHARRAK

-Kirol-gelaren erabiltzaile/bazkideak aparatuei erabilerara egokia emateaz erantzule izango dira, eta erabili ondoren hauek garbitu beharko dituzte (erabiltzaile bakoitzak eramango duen toaila batez-edo).

-Erabiltzaile/bazkideak erantzule izango dira, kirol-gelara erabiltzaile/bazkide ez diren pertsonak sartu ez dezaten. Horretarako aipaturiko gelan erabiltzaile/bazkide diren pertsonen zerrenda bat jarriko da.

-Erabiltzaile/bazkide bakoitzari emango zaion kirol-gelaren giltzaren kopiarik ezin da egin.

-Erabiltzaileak aparatuek erabiltzeko zain badaude, kirol-gelan 40 minutu baino gehiago ezingo da egon.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

5.-JUBILATUAK

Bazkide ez diren Jubilatuek kirol-gelaren erabilera dohaineko izango dute, aurrez Alkizako Udaleko Idazkaritzan, bulego orduetan, giltza eskaturik. Ondorengoa izanik bulego ordutegia:

- Astelehena, asteazkena, osteguna eta ostirala: goizeko 9.30 etatik eguerdiko 14.30etara.
- Asteartean: arratsaldeko 15.30 etatik 19.30 etara.

6.-BAZKIDE EZ DIREN ERABILTZAILEAK

Bazkide ez direnak kirol-gelaren zerbitzua erabili dezakete jubilatuei jarritako baldintza berdinetan, salbu kirol-gela erabili ahal izateko eguneko 2€ ordaindubeharko dutelarik.

7.-KIROL TALDEAK

Alkizako kirol talderen batek kirol-gela erabili nahi badu (adb: pilotan dabiltzan umeek beroketak rgiteko, abdominalak, ...) bazkide den erantzule batekin egin dezakete, horretarako Alkizako Udalean aurrez eskaera egin beharko dutelarik.

SEIGARREN PUNTUA

S.U. IZENEAN I.B. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik S.U. jaunaren izenean I.B. jaunak eginiko eskera, non azaltzen duen 2011ko irailaren 6an Alkizako Udalak, Haitz Mendi Goikoa baserriaren fatxada-baoen aldaketak egiteko baimena eman ziola.

Ikusirik oraindik ezingo duela lanean hasi, obrak egiteko baimenaren luzapena eskatzen du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: S.U. izenean I.B. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, Alkizako Haitz Mendi Goikoa baserriaren fatxada-baoen aldaketak egiteko baimena, 6 hilabetez luzatzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

7.1. ALKIZAKO ARAU SUBSIDIARIOTAKO U.E.U.5.1. UNITATEAN NEKAZAL TURISMOARI LOTUTAKO LAU APARTAMENTU TURISTIKOETAN JARDUERA BAIMENA ESKAERA, A.M.A.

Ikusirik A.M.A. andreak eginiko eskaera, non, Alkizako Arau Subsidiariotako U.E.U. 5.1. unitatean nekazal turismoari lotutako lau apartamentu turistikoetan jarduera baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Industria, Osasun eta Ingurugiro Departamentuak emandako 165/1999 Dekretuan datorrena, non dioen, batetik, Udal Teknikariak txosten bat egin behar duela adieraziz eskatzen den jarduera gaur egun Udalerrian indarrengoan dagoen hirigintza ordenamendua urratzen duen ala ez, eta bestetik, zehazten ditu jarduera baimena emateko beharrezkoak diren izapideak zein diren.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udal Teknikariari eskatzea txosten bat egin dezala, non adieraziko den eskatzen den jarduera baimenak, gaur egun Udalerrian indarrengoan dagoen hirigintza ordenamendua urratzen duen edo ez zehaztea.

BIGARRENA: Teknikariaren txostena aldekoa balitz, aipaturiko dekretuan zehazten den modura tramitatu dadila espedientea. Ondorioz, jarduera kokatu behar den inguruko bizilagunei jakinaraziko zaie hamar eguneko epea dutela jarduera honen kontra erreklamazioak aurkezteko; aipaturiko epea amaiturik, eta erreklamazioak azterturik, erreklamaziorik balego, jarri daitezela aparteko neurriak jardueraren funtzionamendu egokirako eta Udal Teknikariak ikuskaritza egin dezala ziurtatzeko aipaturiko neurriak jarri direla.

7.2. ALKIZAKO HERRI ESKOLAK EGINIKO ESKAEREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Herri eskolak aurkezturiko idatzia, non ondorengoa dioen:

“Udal agurgarri hori:

Idatzi honen bidez eta eskolako balizko eraikuntza berriaren atzerapena dela eta, datorren ikasturterako 2012-2013 moldaketa lanak egin beharra daudela esatera gatozkizue.

1. Goiko solairuko hormek saneamenduaren-pintura, hezetasunaren



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

kontrako tratamendua-premia dute. Izan ere, ipar aldera ematen duen pareteko hezetasuna dela eta, pintura ateratzeaz gain, filtrazioa ere antzematen da.

- 2. Goiko leihoetan ere errebisio bat egitea komeni da, neguko haizeteekin eta zaparradekin ireki egiten baitira. Era berean, putzuak eta bestelako kalteak sortzen dira.*

Lan hauek burutzeko Hezkuntzatik diru laguntzak izaten direla jakingo duzuen arren, obretaz arduratzen denaren telefonoa luzatzen dizuegu, behar izan ezker, harekin harremanetan jartzeko. Carlos Rivero: 943-022898.

Horrezaz gain, jakin ezazue bai gurasoak eta bai irakasleak prest gaudela-brigada erara?-pintatzen edota garbiketa lanetan laguntzeko.

Besterik gabe, zuen berrien zain gelditzen gara, aldez aurretik mila esker!

Eskolako komunitatea”

Gaia azterturik, batzarkideak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Herri eskolari jakinarazi, Hezkuntzari egindako kontsultan, jakin izan digutela, oraindik diru-laguntzarik ez dituztela atera horrelako obrak egiteko.

BIGARRENA: Alkizako Herri eskolari jakinarazi, batzarkideak jakinaren gainean gelditu direla Herri eskolak egin dituen eskaeraz.

HIRUGARRENA: Alkizako Herri eskolari jakinarazi, guraso eta irakaslek agertutako disponibilitatea eskertzekoa dela.

7.3.ALKIZAKO HERRI ESKOLAK EGINIKO ESKAEREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Herri eskolak aurkezturiko idatzia, non ondorengoa dioen:

“Udal agurgarri hori:

Alkizako eskolak frontoiko eta parkeko jolastorduari buruzko eskaera luzatu nahi dizu.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Elkarbizitza hobetzeko asmoz eta frontoiaren eta parkearen erabileraren gainean egon daitezkeen gaizki ulertuak saihesteko, frontisean eta parkean karteltxo bat ezartzea (lehen zegoen edota antzekoa...) proposatzen dugu. Era horretara, eskolako orduetan behintzat, eskola umeentzat lehentasuna ziurtatuko guke. Eskolako jarduerak errespetuz eta egoki egiteko ezinbestekoa iruditzen zaigu neurri hau. Aldez aurretik mila esker eta laster arte!

Alkizako herri eskolako ikas komunitatea”

Gaia azterturik, batzarkideak Alkizako Herri eskolak egindako idatziaren berri jasotzen dute.

7.4.ALKIZAKO GARAIKOETXE BASERRIKO LURSAILETAN BI NEGUTEGI JARTZEKO ALKIZAKO UDALAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZ GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BERRIKUNTZAKO, LANDA GARAPENEO ETA TURISMOKO DEPARTAMENTUAK EMANDAKO TXOSTENA.

Ikusirik M.B. jaunak Alkizako Udalean eginiko eskaera, non Garaikoetxe baserriaren lur sail eremutan bi negutegi jartzeko baimena eskaera egin zuela.

Ikusirik M.B. jaunari eskatutako obra baimena emateko, aurkeztu behar zuen dokumentazioaren artean Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa garapen departamentuaren txostena zela. Horretarako M.B. jaunak aurkeztutako dokumentazioa Alkizako Udalak Landa Garapen departamentura igorri zuen.

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak Alkizako Udalera igorri duela ondorengo txostena:

“Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak lurzoru hiritarrezineko baimen eta lizentzia kontuetan jarduketak koordinatzen dituen azaroaren 24ko 82/1998 Foru Dekretuaren 1. Artikuluan aipatzen den txostena egin dezan eskatuz, udal horrek egin duen eskaerari erantzunez, Departamentu honek ondoko txosten hau prestatu du:

ALKIZAKO GARAIKOETXE BASERRIKO LURSAILETAN BI NEGUTEGI JARTZEKO HANGO UDALAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO TXOSTENA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Txosten hau Alkizako Udalaren eskariz egin dugu, 1998ko azaroaren 24ko 82/1998 Foru Dekretuak, lurzoru hiritarrezinean eraikitze baimen eta lizentziak emateko jarduketan koordinazioari buruzkoak, xedatzen duenaren arabera; hain zuzen ere, egin nahi den eraikina egiteko baimena eman aurretik nekazaritza-abeltzaintza ustiapenarekiko zer lotura duen baloratzeko, eta zehazki, ustiapenaren intentsitatearekin lotura eta proportzio egokia duen adierazteko, hala ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketako Jarraibideetako 10. Artikuluan eta 5.3 puntuko f.5, f.6 epigrafeetan. Jarraibide horiek 1997ko otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartu ziren.

Baimen eskatzailea Paotxa Kalamu Elkartea da eta ez da Gipuzkoako Nekazaritza Ustialekuen Erroldan inolako abeltzaintza-nekazaritzako ustialekuaren titular gisa ageri.

Eskatzaileak, Alkizako Garaikoetxe baserriko lurretan bi negutegi jarri nahi ditu (bakoitzak 18m luze eta 8,60m zabal izango dituen).

Eskatzailea Nekazaritza Ustialekuen Erroldan ez dagoenez, ez dugu ustialekuko inolako datu ekonomikorik. Aldi berean ez dute bidegarritasun txostenik ekarri eta beraz ezin dugu esan 82/98 Foru Dekretuak eskatzen duen gutxieneko bideragarritasuna gainditzen duen edo ez.

Interesatu horrek Foru Ogasuneko agiriaren bitartez ez du egiaztatu nekazal enpresarien erroldan sartuta dagoenik; ez du ekarri nekazaritzan jarduteko gaitasun profesionala egiaztatuko duen nekazaritza adarreko titulazio akademikorik ere, ez eta egiaztatu nekazaritzan prestatzeko ikastarorik egin duenik edo nekazaritzan duen esperientziarik, azaroaren 24ko 82/1998 Foru Dekretuak eskatzen duen moduan (Ustialekuen Erroldan 2 urte baino gehiago izena emanda egotea edo 150 orduko formazioa).

Hori dela eta, Alkizako Garaikoetxe baserriko sailetan bi negutegi jartzeari kontrako iritzia ematen diogu.

Jakin dezazun eta bidezkoak diren ondorioetarako adierazten dizut hori.

Foru Diputatua”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: M.B. jaunari Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, landa



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

garapeneko eta Turismoko Departamentuko Foru Diputatuak igorritako txostenaren berri ematea.

7.5. LARRAULGO UDALAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA

Ikusirik Larraulgo Udalak eginiko eskaera, non azaltzen duten ekainaren 3an Larraulen, Eskola txikien jaia ospatuko dela, horregatik 400 lagunentzat mahaiak eta aukiak uzteko baimen eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalari 400 lagunentzat behar dituzten mahaiak eta aukiak uztea, Larraulen, ekainaren 3an egingo den Eskola txikien jairako. Mahaiak eta aukiak hartzeko Udal operarikin harremanetan jarri beharko direlarik.

BIGARRENA: Larraulgo Udalari jakinarazi, mahaiak eta aukiak jasotako egoeran itzuli beharko dituztela eta hauek hautsiz gero, berriak ekarri beharko dituztela.

ZORTZIGARRENGO PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 23.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.